




BILBON: IMP. DE LARUMBE.



M - 21708" ATV. 9.919
R 12162



BICI BEDI JESUS

MISIÑO SANTUETARAGO

CANTAAC,

VIZCAIGO EUSQUERAN


IMINIAC.



BILBON: IMP. DE LARUMBE.



(3)



PECATARIAI DEIAE.

1. **J**esus arzain maitea
dator gaur dedarrez,
ardi galduen billa
arin ta negarrez.

*Damuz, eta negárrez
nator ni zugana
Jesus ¡ay! nic damú dot
pecatu eguiná.*

2. Ama baten negárrac
semeá galtzéán,

(4)
eztáve cer icusi
onénen aldeán.

3. ¿Nora zoaz iguesca
esquer gaizlocoá?
arren aitu Jesúsén
biotz-naibacuá.

4. Erri asag óelan
¿cer aurquitu dozu?
gosea, ta negarra,
aulôrtu nai bozú?

5. Celan ceu aztu zára
Jesus on-onegáz,
bere mesedeacaz,
bere laguntzeáz?

6. Zatoz, pecalaría,
híde leun garbirá.
gura badozu guero

(5)
igon gloriará.

7. i Ay ! ce poza berétzat
aurquitzen bazaituz
lepo-ganian pócic
ac artuco zaitúz.

8. Jauna-gana bazátoz
ceru ederreán
;ce canta, ce yolásac
eguingo direán!

9. Ez bada, ez gogórtu
guizon zoratúa;
ez beste bein larrítu
Jesus maitetsuá.

10. Arren urlen lastérca
bide deungueetaric:
agurra eguiézu
biotz-biotzeric.

(6)

11. Agur mundu zoróá
agur pecatúa:
gaur-ganic billa gurot,
Jesus gozotsuá.

JESUS CURUTZEAN YOSIARI.

Jesus gueure Jaun inaite
amodiotsuá,
damu dogu guztioe
ceú ofendiduá.

1. Yosiric icustéan
crulze orretan ceú,
errúquiz ¡ay! biotza
¿noc urratuco ez deú?
baita baleuco bére
arri biurtuá *damu.*

2. Burutic oñetára

(7)
gorpultz edler ori
zauri gordín eguinic
dozu guztiori
jay! zorigáistecóa
gueure pecatua! *damu.*

3. Oñac, escu tá alboa
dana zulaturic;
bizcar-aldea azótez
guztia apurturíc:
arántza gogórrácaz
yosiric buruá. *damu.*

4. Aimbéste min gogórrez
gaisho zarealá,
arzain bat ardiáren
atzéan becelá,
gueure billa ceu zabiltz
erruquiz urtuá. *damu.*

(8)

5. Jesus ceu gure billa,
ta ¿gueuc igues zuri?

Gueu bear gozuzala
ceuc Jauna, dirudi.

¡O guizon esquerbáco,
gaisto zoratua! *damu.*

6. Jauna, ¿cer galtzen dozu
gueu ézoc galtzean?

¿Gueu бага etzinéan
betico guztían?

¿Cec zaúcaz ceu gugana,
orren laztantsuá? *damu.*

7. Ceu бага ecin gueínque
gauzaric baperé

ezta ecelan emon

arnasa bat beré,

Ceu ondasun gustien

(9)

sustrai la buruá. *damu.*

8. Au ónelan yaquinie
¿hici izan nas ni
beti urrin ceu-gánie,
ceure igues beti?
Ondo neucan ni lúrrac
nombait itsutua! *damu.*

ANDRA MARIARI ESCARIAC.

1. Pecatarioc ama,
Virgina zaitugúz.
ceugan gueure biótzac
gueuc iminten dogña.
Eguizu ceuc María,
gu-gaitic erregú
eriotzaco orduan
ez gaitezán galdù.

(10)

2. Ceure icen santúa
balia bequigú:
ceure bioltz onéan
usteac guc dogúz. *Eguizu.*

3. Bein bere iñor ézta,
ta bai, María, zu,
ama izan esquéro,
doncella guelditú. *Eguizu,*

4. Jáungoicoaren áma
eguinic zacusgúz,
árren ceure semétzat
ezagutu gaizúz. *Eguizu.*

5. Ceure semeac gaituz
cerutic billatú;
¿celan ceuc naico dozú
gucu gaitezán galdú? *Eguizu*

6. Zaquiguz bada lagun


(11)

daiguzan garbitú
biotzac, pecatúan
ez gaitezan lotú. *Eguizu*

7. Pecatu eguin bogu
orren damú dogú
agaitic ez gaitézán
infernuan sartu. *Eguizu.*

8. Alperric infernúac
arlucó dau damú;
orain, guero, ta beli
ceureac gara gú. *Eguizu.*

6. Ceruraco bidéa,
Virgina, zara zu
ara gura dabénac,
billa bear zaituz. *Eguizu.*



(13)

AMA VIRGINA DOLORETACOARI.

1. Agur dolorezco
Ama larritúa,
Erreguina laztan
erruquiz urtúa.

*Artu gaizuz, Ama,
seme necatúac.*

2. ! O Raquel ederra
nequez asetúa!
gu semeoc gágoz
negarrez urtúac. *Artu,*

3. Ceure biotzéco
cañibet sulsúac
sartu izan deutsúz
gueure pecatúac. *Artu*

4. Orrec bada gácaz

(14)

guztiz damulúac,
garbitu guraric
negarrez erruac. *Artu.*

5. Gueure zorióñac;
Virgina prestúa,
ceure bilarlêcoz
dituguz artúac. *Artu.*

6. Ceure ezpatac dira
arma zorroztuac,
berlan apurtzéco
diabru galdúac. *Artu.*

7. Icusi nai gueúnque
geuc erbestetuoc,
ceure seme lázlan
Jesus gozotsúa. *Artu.*

8. ¡O Ama bigúna!
¡ó erruquitsúa!

(15)

arren izan gaitez
ceruan sartuac. *Artu.*

SALVEA.



b. Jaungoicoac gordezaitzala
Erreguina

b. erruquiz betérico áma.

a. bicitza gosotasun eta espe-
ranza gueuréa

Jaungoicoac gordezaitzala

b. Ceure deiz gágoz

a. Evaren ume erbestetuoc

b. Ceu gana gagoz gu cizpúrus

b. sentimentuz eta negarrez

a. negarrezco erri onétán.

(16)

b. Fa bada, Andréa

b. bitarteco gueuréa,

a. biurtu eguizuz guganantz

b. zure beguerruquitsu orrec

a. Eta erbeste au irago éta,

b. eracutsi eguiguzu Jésus

b. ceure sabeleco frútu

b. bedeincatúa.

aa. ¡O biotz-bigúna!

aa. ¡O erruquiórra!

b. ¡O María Virgina gozoa!

b. erregutu eguiza gu-gaili,

b. Jaungoicoaren ama santéa

aa. merecidu daigun

b. alcancetéa

a. Jesucristoren aguintzariac

b. Amen, Jesus.